

DONOSTIA

AGENDA 21EKO III. TOKIKO EKINTZA PLANA 2019KO EBALUAZIOAREN EMAITZAK



Udalsarea 2030 – Udalerri Jasangarrien Euskal Sareak sustatutako **Garapen iraunkorreko tokiko politika publikoak ebaluatu eta jarraitzeko 10. programaren** esparruan egindako ebaluazioa

Ingurumen Osasuna eta Iraunkortasun Zerbitzua



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Osasuna eta Ingurumena
Salud y Medio Ambiente


udalsarea 

udalerri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles

Tokiko Ekintza Plana

Donostiako hirugarren Tokiko Ekintza Plana 2015eko otsailean onartu zen eta 8 urteko iraupena du (2015-2022).

Planak **186 ekintza** ditu, eta 3 jarduera-ardatz nagusitan banatzen dira:




Planak 7 lerro estrategiko ditu:

1. **Kontsumo arduratsuarekin** konprometitutako hiriaren eredu baterantz aurrera egitea.
2. **Hondakinen prebentzioa** bultzatzea eta **kudeaketa hobetzea**, herritarren erantzunkidetasuna sustatzeko.
3. **Ingurune osasungarria** bermatzea eta herritarren **osasuna sustatzea**.
4. **Uraren zikloaren kudeaketaren hobekuntzan** aurrera egitea eta **erabilera arduratsua** sustatzea.
5. Berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, **mugikortasun iraunkorra** bultzatzen duen hiri baten alde egiteko.
6. Tokiko ekintza indartzea **energia-eraginkortasunean** eta **energia berriztagarrien sustapenean**, eta **klima-aldaketara egokitzeko bidean** aurrera egitea.
7. **Biodibertsitatea** eta udalerriari eskaintzen dizkion zerbitzuak **babestea**, **kontserbatzea** eta **partekatzea**.

Zein da gure planaren egoera Gipuzkoarekiko?

2018an egindako **tokiko jasangarritasun-politiken diagnostikoaren arabera ...**

Iturria:
Gipuzkoako
Iraunkortasunaren Behatokia
(GFA)




Donostia zen bere plana **indarrean, eguneratuta eta modu aktiboan kudeatuta** mantentzen zuen udalerrietako bat.

Zein izan da planaren ezartze-maila 2019ra arte?

2019ra arte
%47 a
exekutatu zen

Iturria:
Udalsarea 2030
(e-mugi)



Ebaluatutako azken bi urteetan ezarpen-maila nabarmen handitu da aurreko biek alderatuta, urteko %8ko eta %9ko hazkundearekin, hurrenez hurren.

2015etik 2019ra ekintzak kendu dira, beste batzuk bateratu eta berriak gehitu dira etengabeko hobekuntza-prozesuaren barruan.


Zein da ekintzen ezartze-maila?

Ekintza planak modu egokian egin du aurrera, izan ere, 2019an ekintzen %8 soilik zegoen *Hasteko* egoeran.

Planaren indarraldia amaitzeko 3 urte falta direla ekintzen %66 *Aurreratuta*, *Amaitzen* edo *Osatuta* daude.

Beren izaera dela eta, planteatutako ekintzen gehiengoa, *gehienez ere Aurreratuak* edo *Amaitzen* egoerara iritsi daitezke.

Ekintzen egoera 2019an



Iturria: Udalsarea 2030 (e-mugi)

Datozen hiru urteetan funtsezkoa izango da *Hasitako* ekintzen (%26) eta *Hasteko* daudenen (%8) bilakaera.

2019an amaitutako ekintza nagusiak

01. KONTSUMO ARDURATSUAREKIN KONPROMETITUTAKO HIRI EREDU BATERANTZ AURRERA EGITEA

1.1.3 Udalak eta bere menpeko erakundeek egindako 34 kontratazioetarako pleguetan ingurumen baldintzak sartzea.

1.2.2 Elikagaien xahuketari aurre egiteko gida argitaratzea elikagai-komertzioentzat.



02. HONDAKINEN PREBENTZIOA BULTZATZEA ETA KUDEAKETA HOBETZEA, HERRITARREN ERANTZUNKIDETASUNA SUSTATZEKO

2.1.7 Biohondakinen gaikako bilketa ezartzea hondartzetan udako denboraldian.

2.1.8 Hiriko kirol-ekitaldi nagusietan hondakinak murrizteko adostasuna lortzea.




2019an amaitutako ekintza nagusiak

03. INGURUNE OSASUNGARRIA BERMATZEA ETA OSASUNA SUSTATZEA

3.1.2 Alergenoei buruzko sentsibilizazio-kanpaina ostalaritza sektorearentzat.

3.2.6 Loiolako Erriberan zarataren karakterizaziorako azterlana.



04. URAREN ZIKLOAREN KUDEAKETAREN HOBEKUNTZAN AURRERA EGITEA ETA ERABILERA ARDURATSUA SUSTATZEA

4.2.1 Hobekuntzak hainbat saneamendu-azpiegituratan 2.200.000 euroko inbertsioaren bidez.

4.2.2 Urumeako arintzeen azterketa eta jarduteko protokoloa garatzea.



2019an amaitutako ekintza nagusiak

05. BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN EMISIOAK MURRIZTEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORRA BULTZATZEN DUEN HIRI BATEN ALDE EGITEKO

5.2.3 Igogailu bertikalak eraikitzea Morlansen eta Larratxon.

5.3.4 5 autobus hibrido berri erostea.



06. TOKIKO EKINTZA INDARTZEA ENERGIA-IRAUNKORTASUNEAN ETA ENERGIA-BERRIZTAGARRIEN SUSTAPENEAN ETA KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO BIDEAN AURRERA EGITEA

6.1.1 Txomin Eneako District Heating-a eraikitzea 1.500 etxebizitzentzat.

6.1.5 Hiriko mapa termikoa argitaratzea.




07. BIODIBERTSITATEA ETA HIRIARI ESKAINTZEN DIZKION ZERBITZUAK BABESTE, KONTSERBATZEA ETA PARTEKATZEA

7.3.2 Artikutzako urtegia hustutzea.

7.3.8 Ulian espezie inbaditzaileak kentzea.



Lerro estrategikoen arabera ezartze-maila (%)



Iturria: Udalsarea 2030 (e-mugi)

Nola bultzatuko da plana 2022ra arte?

01. LERROA - KONTSUMO ARDURATSUA

- *Lehentasunezko 20 talderen kontratazioan ingurumen baldintzak sartzea.*
- *Autokontsumorako baratze-sarea handitzea.*

02. LERROA - HONDAKINAK

- *Edukiontzien Plana auzo berrietara zabaltzea.*
- *Ondasunak eta materialak berreskuratzeke ekimenei laguntzeko programa sustatzea.*

03. LERROA - INGURUNE OSASUNGARRIA ETA OSASUNA

- *Airearen Kalitaterako Klima Plana ezartzea.*
- *Zarataren Mapa Estrategikoak eguneratzea.*

04. LERROA - URA ETA ERABILERA ARDURATSUA

- *Hiri-drainatze jasangarriko irizpideak sartzea urbanizazio berrietan eta espazio publikoen erreformetan.*
- *Kontsumoa murrizteko kultura sustatzea.*

Nola bultzatuko da plana 2022ra arte?

05. LERROA - MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

- *Hiriko bide guztietan 30 km/h-ko muga ezartzea.*
- *Alokairuko bizikleta publikoaren sistema zabaltzea.*

06. LERROA - ENERGIA ERAGINKORTASUNA, ENERGIA BERRIZTAGARRIAK ETA KLIMA ALDAKETARI EGOKITZAPENA

- *Energia-eraginkortasun txikiko eta baliabide ekonomiko gutxiko etxebizitzak birgaitzeko programa bultzatzea.*
- *Udal-eraikinetan autokontsumorako eguzki-instalazio fotovoltaikoak hedatzea.*

07. LERROA - BIODIBERTSITATEA

- *Lurraldea iragazkor bihurtzeko naturan oinarritutako irtenbideak bultzatzea.*
- *Artifizializazio-maila handia duten ubide txikiak birnaturalizatzea.*